

ILLARGIRAKOAN

LARRESORO

Kaseta askok ezagutarazi digu fotoa: ezker aldean illargia; eskubi aldean, Lurra. Orain arte misilota-tik lortu dan ederrena bide ba. Baietz esango nuke nik.

Illargirako bidea idekia izan da, beraz, bi aldiz segidan joanda-eterria ongi gertatu baita. Laister, beraz, Illargiko zoria zapalduko du gizonak.

Ba dirudi une ona dala gure bu-ruaz harrotzeko: Lurretik aldegit-eko gauza da gizona lehenengo al- diz. Ba dago arrakasta hortan zer- taz pozturik, zalantzarik ez. Lais- ter hasido da eskierki gizadiaren Aro berri bat. Astronomiaren alde- tik, batez ere (astronomoek ongi dakite) Illargirako urratsak orain zrteko iritzi asko iñarros dezake.

Hori izango ote da, ordea, pau- suaren kakoa? Ez, nik uste. Illar- girako joairak beste aldetatik astin- duko gaitu sakonkienik.

Alde batetik, gizadiaren umil- ta- suna azkartuko du. Eman dezagun Illargira heldu gerala; eta egun ba- kar batean Illargirafo joan gaitz- keala (ez gera oarngoz hortan). Habaila hori hamazazpi milla ki- lometrotako orduan izango litzake.

Habaila hortan mogiturik, zor- tzi hillabete beharko genituzke Ar- tizarra joateko (irakurleak daki- kean bezela. Artizarra dugu plane- tetan hurbillena); zortzi hillabete, beraz, misiloan geldirik, grabitazio- rik gabe, iñora aldatzeko modurik gabe, egurasteo erarik gabe, irra- diaziomota guzien agerrian egon beharra, eta abar, eta abar. Beste planetetara joatea ez da berealako kontu bat!


Are umillago jarriko gera, nere ustez. Eguzkiaren inguruko siste- matik jalgitzerakoan. Zentauro-ko Alfa da izarretan hurbillena: Zen- tauro-ko Alfa'ra iritxeko 228.000 urte pasa beharko genituzke (guk geuk eta gure ondorengoek) «hau- zo»ko sistemara aldatzeko.

Jakiña danez, Eguzkia ez dago iñundik ere ez Munduaren erdian (Ptolomeo gizaioa!), ez gure Ga- laxiaren erdian ere. Geure Galaxi' ko erdiraño joateko, 1950 milloio urte beharko genituzke...

Eman dezagun orain gure Gala- xia'tik jaregin nahi dugula, beste batera aldatzeko. Eman dezagun Andromeda'ra joan nahi dugula (Andromeda gure «galaxia bizkia» dan ezker). Misiloaren nabaillan joanda, 130 milla milloio urte behar- ko genituzke... Eta Quasar'etara jo- atekotan, ehunka kondatu beharko genituzke urte-billoioak!...

Umitasuna, beraz, azkartu egin- go da gugan.

Baiña, karkulutara jo gabe ere, zer nabaituko ote dute garrazkie- nik Illargian pausatuko diran gizo- nek? Txorabioa, nere ustez, Kos- mo-Ikara; astronomoek betidanik ezagutu duten barne ikara ixilla. Paska'ek hitz egokiz azaldu digu- na. Babilonia zaharreko artzaiak azpaldidanik izarrez arduratzera eramán zituen Hutsune-Txorabioa.



Neri bederen gogoeta hauek ida- rtoi dizkit kasetak argitara duten foto eder horrek. Gure mundu hau izar hotz eta kaxkar gisa errepara- tzean, fotoan Illargiko geografia xe- he-xebe eta Lurreeko larri-larri bai- zik ez ikusita, ni torabioak hartu nau. Ez iñolaz ere harrokeriak.

Argentina'tik

EUSKERAREN EGUNA

Abenduaren zazpi garrenean, LAURAK-BAT Idaztitegiko aretoan ospa- tu gendun. Emen, Euskeraren-Eguna Abenduaren iru garrenean gogoratzen da, Xabier Pantzeska deuna zaindari dugula, Euskeltzale-Bazkunak bere ar- durapean arturik.

Zazpi garren eguna larunbata izanik, egun orretan ospatu zan ba, Euskeraren-Eguna.

Euskeltzaleen urteko Batzarra lenengo, gero euskel-ikasleen iaia, eurek eraturik, iñori euren gogoak ikutu gabe, euren gain laga zan dana, eta ikus- tekoa da, zelako ardura eta naimena izan duten, egitarau, edo programa ikusiz. Aurtan, URRUNDIK, Monzon'en olerki liburua artu dute euren saio- etarako, baita Domingo Agirre'ren GAROA, eta Galindez en ERRIMINA. Iai au, oso ederto gertatu zuten, eta edozein euskaldunek bezin egoki oguz- tu. Iai atseginkorra benetan, eta ordu terdi poztasunaz eta biotz-ukutz be- tea izan zan. Ikasle maitateak, eta zintzoak, euskera goraltzen dutenak, eta euskaldun askori adibide eta adorea ematekoak, ba gelinek, argentinarrak, eta bi edo iru belatunaldikoak. Emen, urte bi onaitan, ikasle oneik, aurre- rantzua aundia egin dute, eta aldi gutxi barru, euskeraren mamiña ikasia dute. Naitasunaren indarra, larunbatara, ekieñez, aspertu gabe, euskera bide dala. Euren arbasoan erriari maitasuna erakutziz, euskera bide dala baita, lanean dabiz, gure artean pozkortu dedin gure aurretikoen izakera, LAU- RAK-BAT eta gure biltegiotan, esko kutsua duten iaia egitzez, gure asaba- ri goralmena emanez, gure erriko zugatzen adarrak bezela emen iarritu daigun. Poztasun aundia eta itzaropena, onelako ikasleak ematen dutena. Emen Argentina'n oraindik aibat euskaldun gaudu, eta euskaldunen on- dorengoak millaka dira. Guk dituguzan bezelako ikasleekin, itzaleko lana egin leike, eta gure erriari mesede aundia egin, ba artu-emanak biotzetiko- goak izanik, ezakigu noraiñoko onurak aterako gindukezen, bai emen eta or. Onetan ari gara, eta gauzak asiera bear duten ezker, geroak esango du, noragiño elduko garean. Lenengo lana, emen egin bearko da, esko-odola dutenak, atakotzat artuz. Uste dugu, lurra ugaria dala, orain landu eta txu- kuntzea bear. Emen beintzat, gure ikasleok, biotz-berotuta dabiz, eta abiz- enak, Irujo, Iruzu, Etxeberri, Bordenabe, Unda, Artetxe eta Azagra dira. Baita gurekin bat egitiek, abizena euskalduna izan ez arren, Benitez Caste- llanos, Castellanos de Benitez, Casavilla de Villar, Barreiro eta Minaverry ere izan dira, la urtenak eurek. Eurek diñuenaz, lenengo abizenak eta beste batzuek euskaldunak izan ez arren, euskaldunen odolara darue abizen batzuetan. Minaverry, euskaldun abizena da, baña besteak ez ei dira. Da- na dala, euskaldun askok nai genduke oneik duten zaletasuna eta maitasu- na gure euskerarentzako.

EUSKELDUNEN MEZA

Illaro, bigarren giandean egiten da emen Buenos Aires'en Abendukoa, Euskeraren-Eguna ospatzeko, eta Xabier'ko Pantzeska deuna goraltzeko izan zan, gure Euskel iaioi bukaera emanaz.

TORKATIKO

BAR - RESTAURANT

AURRERA

DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Urbietara kaleko 12'an
Urrut.: 12578 - 11528

DONOSTIAN

"AUÑAMENDI" ARGITALDARIA



EUSKAL - DISKOAK

¡¡Orain!!

Emendik aurrera «ZERUKO ARGIA»k bialduko dizu nai dezun liburu. X bat jarri ezker-aldean:

IDOIA GARMENDIA

- | | |
|---|-----|
| <input type="checkbox"/> BIGARREN DISKOA | 110 |
| KOBLAKARI / KATTALIN / AGOTEA / TXANO GORRI- TXO | |
| <input type="checkbox"/> IRUGARREN DISKOA | 110 |
| BORTIAN AHUZI / BAUTISTA BASTERRETXE / AITAK EMAN ZERAUTAN / AMA, ENE ANAYAK | |
| <input type="checkbox"/> LAUGARREN DISKOA | 110 |
| DAISY / ERRIMIÑA / BEATAK / TTIP ETA TTUP | |
| <input type="checkbox"/> BOSTGARREN DISKOA | 110 |
| EZ DA ILEN ERRONKARI'N USKARA / ERRONKARI'N TXORIÑO / ZALDIÑO / IDOIA'KO AMA BIRJINA'RI KANTUAK | |

Zeruko Argiaren Zuzendari Jauna:
Bialdu ezaizkidazu X duten liburuak, artzean pagatzeko.
Izena:
Zuzenbidea:
Erria: ()

Aita Iraizoz euskaltzain berria

Euskaltzaindiak, abenduaren 4-an Iruñean izen zuan billeran, Aita Polikarpo Iraizoz-koa euskaltzain izendatu zuen, Aita Iraizoz- ek, aurtan Seminario Rojas-ek bere heriotze ondorean nafarroako euskaltzainen artean utzi zuen alki hutsa beteko du.

Aita Iraizoz, Agustin Zarranz bere bataio izenez, 1930-etik Eus- kaltzaindiako laguntzaile zen (lehen uzgarle deritze zaien haieta- koa). 1897-an Nafarroako Iraizoz-en sortua eta gaur Erroman Aita Kaputxinoan ordenako Secretaritzaz Generala darama. Eus- kal literaturan oso ezaguna bere «Urtusuya» eta «Irisarri» izenor- dez. 1922-23 urteetan Zurich (Suizan) jardun zan linguistika ikas- taroak egiten Euskaltzaindiaren laguntzarekin. Euskerazko aldiz- kari askotan idatzi du, batez ere lehen parteko «ZERUKO AR- GIA»-n, «Euzko-gogoa», «Euskera» eta «Oleriña»-n. Nafar euskal- kien aditzen estudio sakonak eman zituen «Euskera»-n. Yesu Kristo gure Yaunaren bizia (Iruña, 1934) liburuaren egilea da, eta «Euzko-gogoa»-n argitaratzen zituen olerkiak, amalaukoetan (sonetoetan), aipagarriak dira euskal literaturan.

Gure zorionik kartsuenak Aita Polikarpo Iraizoz-koari.

"LOYOLA" LIBURUAK

- | | |
|--|----------|
| <input type="checkbox"/> DICCIONARIO CASTELLANO - VASCO. - Plácido Múgica, S. I. | 590 peza |
| <input type="checkbox"/> IDAZTEUNA. Itun Zar eta Berria. Ibilbia osoa eus- keraz. - Raimundo Olabide, S. I. | 300 * |
| <input type="checkbox"/> NONI ETA MANI. Svenson. (Aita Muxika'k ale- manetik euskeratua. Umeentzako batez ere ira- gurgai zoragarria ... | 40 * |
| <input type="checkbox"/> MENDIKO ARGIA. Franz Weiser. (Aita Muxika'k alemanetik euskeratua. Gazteentzako batez ere nobela eder-ederra) ... | 50 * |

Nai dezun liburuaren aurrean gurutze txiki (+) bat ipiñi, eta bialdu txartel au ZERUKO ARGIA'ra - Oquendo, 22 - SAN SE- BASTIAN. - Artzean ordaindu bear dezu.

Izena
Zuzenbidea
Erria (Probintzia)